

# MUko Kirol Zerbitzuak antolaturiko VII. Argazki Lehiaketak baditu irabazleak

2009/05/20

VIII. edizioa dugu aurtengoa eta "Kirola eta emozioak" lelopean bederatzi partaide aurkeztu dira. Jokoan argazki onenarentzako 100€ eta bilduma hoberenarentzako 200€ zeuden eta lanak baloratzerako orduan kalitate tekniko eta artistikoaz gain, gaia islatzeko orijinaltasuna ere hartu da kontuan. Gainera, hiru finalistak zeintzuk izango ziren Kirol Zerbitzuak daukan blogean bozkatu ahal izan da. Guztira hamar bozka egon dira eta gehienak 6.partaideak aurkeztu dituen argazkientzako izan dira, bai bilduma eta bai argazki hoberenarentzako.

Beraz, argazki hoberenarentzako finalera heldu diren 3 argazkiak hauek izan dira:

- 1.- 6.partaidearen "nekea eta poza" argazkia.
- 2.- 2.partaidearen "Ameriketako euskaldunak sustraiei gogor eutsiz" argazkia.
- 3.- 7.partaidearen "Indarrez entsegua lortu nahian" argazkia.

Hauetatik hobereena aukeratu beharra izan du Kirol Zerbitzuak eta guztiak paretsuak izan direla argudiatuta argazki lehiaketako bozkek erabaki dute nor izango den sariaren irabazlea. Horrela bada, "Nekea eta poza" izenburudun argazkia izan da irabazlea. Argazkian triatloiko lasterketa bat amaitzeak dakarren nekea eta poza ezin hobeto islatzen da.

Bestalde, bilduma hoberenaren saria irabazteko finalistak hauek izan dira:

- 1.- 6.partaidea.
- 2.- 3.partaidearen "Mach point".
- 3.- 1.partaidearen "jaiki eta segi".

Zalantzak handiak izan diren arren, 3.partaideak aurkeztu duen "Mach point" bildumak eramango du saria. Bilduma honek errugbi partida batean aurkariek izan ditzaketen emozio aldaketak eta jokalariek ikusleei sor arazten dizkieten emozioak (poza kasu honetan) garbi islatzen dira.

Azkenik, Kirol Zerbitzuak eskerrak eman nahi dizkie lehiaketara aurkeztu diren bederatzi partaideei, beraiek gabe jardunaldi hau ez zelako posible izango eta baita bozkaketan parte hartu dutenei ere, beraien laguntzaz irabazlea zein den objetibotasun handiagoaz hautatzen lagundu dutelako.

Mila esker guztioi eta gogoratu datorren ikasturtean beste aukera bat izango duzuela kirolaren inguruko argazki lehiaketa bat irabazteko!!

